

Balaton zeharkatu du

Carlos Peña igerilari tolosarra lau etapa egin ditu Hungariako lakuan ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2005-05-21 ▶ III. urtea ▶ 613. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak Bulego Birtuala aurkeztu du

TOLOSA ▶ «Abonatuerei zuzendutako» zerbitzu berria aurkeztu zuten atzo

URAK ▶ Gipuzkoako Urak bere enpresa publikoarekin batera aurkeztu zuen

KOPURUA ▶ Sei mila milioi litro ur banatuko ditu eskualdean urtero ▶ 2

GARI GARIALDE/ARGAZKI PRESS



Jardunean diren udalen aktak eskatu dituzte

TOLOSALDEA ▶ Irura, Hernialde eta Leaburu daude tartean; egoera normaltzea eskatzen dute alkateek ▶ 4

ALEGIA ▶

Hasi da 'Xantox'-en futbol txapelketa ▶ 5

BERROBI ▶

Gaztetxoak artistak izan dira ▶ 6

ARESO ▶

Joseba Olazabal gaztea zendu da, auto batek harrapatuta

Txirrinduan zebilen Kaxetatik Leitzalderako errepidean ▶ 7



ELECTRONICA TOLOSA
KONPONKETARAKO ZERBITZU TEKNIKOA
Telebista - bideoa - DVD - pantalla handiak
☎ 943 670 323
Iurre, 4 behea 5 • TOLOSA

GUTUN@K ▶

Tolosako Udalari

Tolosako herribusaren zerbitzuan izandako azken berrikuntzei buruz, beste iritzi desberdin bat azaltzera natorkizue. Arramele auzoan —Larramendi kalean— bizi den pertsona bat naiz. Gutxi fisiko bat, hain zuzen ere. Maiatzaren hasieran abian jarri duzuen Mugikortasun Plan berri baten aurrean gaude, eta desadostasun txiki bat zuten aurrean azaltzeko beharrean nago.

Orain arteko bi lineak izan ordez, hemendik aurrera linea bakarra izango dela jakin dugu. Ez zait gaizki iruditzen, baina ez zaidana hain ondo iruditzen zera da: batzuei laguntzeko beste batzuei izorratu behar zaie?

Zergatik kendu diguzue orain arte auzoan eduki dugun autobus geltokia? Nik badakit orain arte oso jende gutxi erabili dugula autobus zerbitzua, baina ziurtatzen dizuet, niretzat oso oso beharrezkoa izan dela autobusa etxetik nahiko hurbil edukitzea zerbitzu horrek irauten duen bitartean. Hain zaila al da? Konpon ezinezkoa, agian, orain arte bezala jarraitzea?

Gasolindegiraino joatea eta bertan buelta ematea bi edo hiru minututan egin daiteke nire iritzi, eta, benetan esaten dizuet, aukozideentzat —nahiz eta momentuz ez erabili— herribusa edukitzea suposatuko lukeela niretzat, egunero edozein lekutatik mugitzeko, ibiltzeko edo paseatzeko aukera eduki ahal izateko. Anbulategira joateko soilik, oso laguntza handia litzateke gu gutiontzat.

Orain Iurreamendiraino joatea oso beharrezkoa ikusten dut, baina gauza batek ez duela bestea kentzen iruditzen zait, eta, posible baldin bada, eskertuko nizuke nire eskaera txiki hau berriz ere eztabaidatuko bazenute.

Beno, niretzat benetan garrantzia handikoa den eskaera hau hurrengo udalbatzarrean kontuan izango duzue-lakoan, mila esker eta hurrengora arte.

FERMIN ETXENIKE
ZALDUENDO ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Bulego Birtuala aurkeztu du Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak

Gipuzkoako Urak bere enpresa publikoarekin batera eman zuten atzo «abonatuiei zuzendutako» zerbitzu berriaren berri



Gipuzkoako Urak enpresako ordezkariak Bulego Birtual berria aurkeztu zuten atzo Kultur Etxean. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

«Gipuzkoako udalerrietan ur horniketa eta honen kalitatea bermatzea, eta udalerririk horietako hondakin-urak ibaietara isuri baino lehen kanalizatu eta garbitzea izan dira Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak, abian jarri zenetik, izan dituen helburu nagusiak. Urte askotako lana, inbertsioa eta esfortzua behar izan dira helburu horiek erdiesteko, eta, egun, horien guztien fruituak jasotzen ari gara». Hitz horiek esan zituen atzo Gipuzkoako Urak-eko Zuzendari Gerente Iñigo Elosegik Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren, eta Gipuzkoako Urak, bere enpresa publikoaren jarduna azaltzerakoan.

Konpromiso hori orain Bajako Sareko zerbitzuetara iristen dela ere azaldu zuen, eta Gipuzkoako 31 udalerritan ematen diren zerbitzuak Gipuzkoako Urak enpresa publikoak beregain hartu dituela; abonatuak kudeaketaz, hornidurarako eta saneamendurako sarean mantentze lanez eta uraren ziklo osoaren kudeaketaz arduratzen da Gipuzkoako Urak.

«Zerbitzu horien ezaugarri nagusiak abonatuengana eta udalerririk gertutasuna dira, eta hori, gero eta gehiago zabaltzen ari den Bulego Sareari esker ari gara betetzen». Bada bide horretan, Gipuzkoako

Ur Kontsurtzioak Bulego Birtual berria sortu du; horren aurkezpena egiteko bildu ziren, hain zuzen, Kultur Etxean atzo Gipuzkoako Urak-eko eta bere zerbitzuak kontratatuta dituzten eskualdeko herrietako zenbait ordezkari.

«Berau ezagutzeko gure webgunean sartu besterik ez da: www.gipuzkoakour.com. Hemendik aurrera, abonatu guztiak Gipuzkoako Urak-en bulego sara zabalatu osatzen duten egoitzetan egin ditzaketen eragiketa guztiak egin ahalko dituzte etxetik, erraz eta inongo joan-etorririk gabe», zioen Gipuzkoako Urak-eko Gestio zuzendari Joxemi Telleriak.

Urtean 6.000.000.000 litro

Gaur arte 34 dira Gipuzkoako Urak enpresarekin Bajako Zerbitzuren bat kontratatuta duten herriak; horietatik 5 —Tolosa, Ikaztegieta, Berrobi, Alegia eta Anoeta— Tolosaldekoak. Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak Gipuzkoako udalerrien %85 —Tolosaldeko guztiak barne— hornitzen du kalitatezko uraz, eta udalerririk horietako hondakin-urak kanalizatu eta saneatu ostean, inolako zikinkeririk eta kutsadurarik gabe isurtzen ditu ibaietara.

Tolosaldeko herrien horniketa-sistema eraikitze proiektuan dauden Ibiurko urtegiak

eta Edateko Uraren Araztegiak osatuko dute. Sistemak edateko uraz hornituko ditu Belauntza, Irura, Anoeta, Villabona, Asteasu, Zizurkil, Hernialde eta Andoain. Herri horiek 55.000 biztanle biltzen dituzte guztira.

Ibiurko urtegia hormigoiko konbentzionala izango da. Ura biltzeko 6.500.000 m³-ko edukiera izango du, 70m-ko altuera, 500l/s inguruko erregulazio-ahalmena eta 25m²-ko isurketa-sare. Ibiurko araztegiaren ur edangarri bihurtuko da urtegitik etorritako ura; 450l/s-ko tratamendu-ahalmenarekin, 6.000.000.000 bat litro banatuko ditu eskualdeko herrietan urtero. Sustatzaileen hitzetan, urak Edateko Uraren Araztegiaren jasoako duen tratamendua «aurretiko ozonizazioa, erreaktiboak nahasteko kamara, dekantazioa, tarteko ozonizazioa, iragazketa, fluorazioa eta desinfekzioa prozesuek osatuko dute».

Bestalde, erabilitako urak ibaietara isuri aurretik urak tratatzen ditu Ur Kontsurtzioak. Adunako hondakin-uren araztegiaren diseinua lokatz aktiboaren motakoa da, eta bi etapa ditu, nitrogenoaren ezabapen biologikoarekin. Karga kutsatzailea 90.000 bizt./baliok.-koa du, aurretiratamendurako gehieneko ahalmena 1.200 l/s-koa eta tratamendu biologikoarena 400l/s-koa.

BULEGO BIRTUALA ▶

Bulego Birtualak hainbat abantaila eskainiko dizkie aurrerantzean abonatuiei:

HELBURUA

Errazago. Ur horniketarekin zerikusia duten eragiketak eta kontsultak inoiz baino errazago egin ahal izatea.

ERAGIKETAK

Alta Bulego Birtualean.

Formulario bat beteaz, edozein abonatu eman daiteke altan. Zerbitzuaren alderdi guztietara iristeko ezinbesteko baldintza da hori.

▶ Formularioa betetzeko beharrezkoa da azken faktura aurrean izatea.

▶ Formularioa bete ondoren, abonatu bakoitzak erabiltzaile izen bat eta pasa-hitz bat jasoko du Bulego Birtual berriara sartu ahal izateko.

Hornidura alta.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren abonatu berri gisa alta gauzatzeko, formularioa bete, inprimatu, sinatu eta NANaren fotokopia batekin eta udalerritarren betekizunekin beteta 943 69 70 50 fax zenbakira igorri, edo, postaz bidali, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioa, Portuetxe kalea, 14-2. Hirugarren atea; 20018 Donostia helbidera.

Polizen kontsulta.

Erabiltzaile bakoitzaren zonale segurua da. Abonatuaren izenean dauden poliza guztien oinarriko datuak kontsulta daitezke.

Datu aldaketa.

Abonatuaren edozein datu alda daiteke; jabearen izenetik hasi eta kargua egiten den bankuko kontu korrante zenbakiraino.

Hornidura baja.

Hornidura alta emateko pauso berberak egin behar dira baja emateko.

Titular aldaketa. Titular berriak alta emateko pausoko jarraitu behar ditu.

Ordainagiriaren kontsulta.

2000tik honako guztiak kontsulta daitezke.

Kontsumoaren bilakaera.

2000. urtetik gaurdainokoa adierazten du diagramak.

Kontagailuen irakurketa.

Etxetik atera gabe bidali daiteke emaitza, orratzetakoa edota digitala izanda ere.

Erreklamazioak. Edonolako kontsulta, erreklamazio edo iradokizun bidali, eta epe laburrean erantzuniko dituzte.

Beti Alai
jatekoa

Garaian garaian janariak
Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeiri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

A/O
ANSAI BILBAO DIVISO S.A.

Grupo CATALANA OCCIDENTE

MOTA GUZTIETAKO ASEGUURUAK

San Frantzisko, 41 TOLOSA Tel.: 943 69 80 54

KIROLA ▶

Peñak Hungariako Balaton lakua zeharkatu du igeri

Ingurumen ministroak hartu du tolosarra

ERREDAKZIOA

Carlos Peña igerilari tolosarra Hungariako Balaton lakua zeharkatzea lortu du lau etapetan bizkar estiloan igeri eginez. Maiatzaren 13an, ostirala, abiatu zen goizeko zazpitan Balatonakarattyá herritik, bertako komunikabide ugari bilduz. Zortzi orduko zeharkaldia Zamardiraino telebista kate bateko kamarek jarraitu zuten.

Bigarren eta hirugarren etapetan —Zamardi-Zanka eta

Zanka-Fonyod— esfortzu fisiko handia egin behar izan zuen Peñak, eguneroko zortzi igeri orduz gain, olatu indartsu aldakorrek gainditu behar izan zituelako. Probaren kontrola eta jarraipena Balaton lakuko itsas poliziak egin zuen.

Ailaera ikusgarria eta hunkigarria izan zen. Azken hiru kilometrotan bi arraunlari taldek jarraitu zuten igerilaria. Keszthely-ko kaia ikusmin handia zuen jendez beteta zegoen. Herrialdeko agintariek hartu zi-



Carlos Peña Balaton lakuan igeri, laguntzaile batekin piraguan. HITZA

tuzten igerilaria eta bere laguntzaileak, komunikabide ugari bilduz.

Zeharkaldiaren ondoren Carlos Peñak elkarrizketa eta erreportai ugari egin ditu Hungariako komunikabideetan. Herenegun Kolber Istvan Hungariako ingurumen ministroak

hartu zuen igerilari tolosarra, ingurumenaren alde egindako lana eskertzeko.

Orokorrean, zeharkaldia «erabateko arrakasta» izan dela diote Peñaren taldekoek, «bai kirola aldetik, bai ekologia aldetik, Balaton lakuaren defentsa egin duelako».

KIROLA ▶

Emakumea pilotari egitasmoa sustatzeko hitzarmena

Udalak eta pilota federazioak sinatu dute; ikastetxeetako 85 neska dira partaide



Maider Mendizabal federazioko teknikaria eta Jokin Bildarratz alkatea atzo hitzarmena sinatzen. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Pilota emakumeen artean sustatzeko Emakumea pilotari izeneko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten atzo Gipuzkoako Euskal Pilota Elkarteak eta Tolosako Udalak «jendarte sektore honetan euskal pilotaren praktikak izan dezakeen potentziala sinistuta, azken

urte hauetan emakumeen lizentzia kopuruak daraman jora negatiboari aurre egin eta emakumearen berdintasunaren aldeko mugimenduen helburuekin bat etorri nahian». Tolosaz gain, Arrasate, Ataun, Azpeitia, Bergara, Donostia, Hernani, Hondarribia, Irun eta Zestoako udalak eta Ikaspi-lota/Gipuzkoako Ikastolen Elkar-

tearen inplikazioa lortu du federazioak. Pilota elkarte eta emakume kolektiboaren laguntza ere espero du.

Hiru arlotan eragin nahi du egitasmoak: eskola kirola, jolas kirola eta kirol federatua. Tolosaren kasuan, eskola kirola arloa hasi dira lantzen. Samaniego, Hirukide eta Laskorainen artean 85 neska eman

dute izena, alebin, infantil eta kadete mailetan, 10 urtetik 16ra. «Orain arte sustapen jarduera batzuk egin ditugu eta oso gustura gelditu gara. Datoren ikasturte hasieran urte osoko plangintza egingo dugu», azaldu zuen Maider Mendizabal federazioko teknikaria. Eskua eta pala lantzeko jolas horien ondoren lehiaketa saioak izango dira, hasiera batean herri mailan, ondoren eskualde mailan eta azkenik Gipuzkoa mailan. Ekintza berezi batzuk ere —pilota tailerrak, festak, erakusketak...— antolatzeko ere aurreikusten dute.

Kirol federatuaren arloan, emakume pilotarien gaur egungo kolektiboaren proiektuan inplikatu, emakumeekin nolabaiteko dinamika daramaten pilota elkarteak inplikatu eta GEPEko batzar orokorrean eta zuzendaritza batzordean emakumeen parte-hartzea sustatu nahi dute.

Azkenik partaidetza kirolaren arloan, eskuz binakako Gipuzkoako txapelketa herrikoia antolatzea eta herriko festetan emakumeei zuzendutako pilota jarduerak egitea aurreikusten dute.

Tolosako Udalak 6.000 euroko laguntza emango dio egitasmoari eta alkatea «pozik» agertu zen sinatutakoarekin.

GAZTERIA ▶

Bihar Izaskunera irteera Topagunetik

Gazte Topaguneak mendi irteera txiki bat antolatu du biharko Izaskunera. Triangulon gelditu dira 16:00etan eta gazte guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera.

ERLIJIOA ▶

Santa Mariako kapera, bihar Izaskungo mezan

Santa Maria parrokiako musika kaperak Izaskungo mezetan abestuko du bihar 11:00etan. Normalean maiatzeko azken igandean izaten da meza hau, baina 29an Korpus Eguna da eta Santa Maria parrokiaren abestu behar duenez mezetan eta ondorengo prozesioan Mokoroaren moteteak, astebetez aurrreratu dute. Kaperako kide guztiak bi igandean abestuko deia egiten diete.

MUSIKA ▶

Tonky Blues Band gaur Fronton kafetegian

Atzo izan beharrean —informazioa oker pasatu zuten—, gaur 23:30ean izango da Tonky Blues Band-en kontzertua Fronton kafetegian. Gitarra jole madrildar ezaguna entzuteko sarrera doakoa izango da, beti bezala.

KIROLA ▶

Olinpiadak bertan behera utzi dituzte

Aurten ez da Eskolarteko Olinpiadarik izango, antolatzailerik —CIT, ikastetxeetako koordinatzaileak eta Udaleko Kirol Saila— hala erabakita. Hasiera emateko jarritako egunean, maiatzaren 13an, «gertakizun tamalgarria» gertatu eta gero, herri kirolak eta atletismo jaialdiak bertan behar utzi zituzten. Gauzak horrela, aste honetan kirol desberdinen datak eta zereन्द्रak berriro moldatzeko tan gelditu ziren. Beste ekintza batzuk direla eta, Olinpiadak ospatzeko beharrezko diren instalazioen erabilera «oso mugatua dagoenez», 2005eko Olinpiadak bertan behera uztea erabaki dute.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Joko garbiko eta eskuz banakako partidak

Villabonako Errebote Plazan, 10:00etan, Euskal Herriko txapelketako joko garbiko partida Behar-Zana eta Har-doyren artean. Zizurkilgo Intxaur Pilotalekuan, 16:00etan, Tolosaldeko II. pilota topaketan eskuz banakako partidak lau t'erdian, seniorren mailan: Altuna J. Altunaren aurka eta Pikabea Aranburu I. aren aurka.

VILLABONA ▶

Katekesi ikasturtearen amaierako jaia

Gaur katekesi ikasturte amaierako jaia egingo dute herrian. Meza ondoren jolasak egingo dituzte Arratzaingo eskolatan goizean. Arratsaldean Gurean Angolako haurrei buruzko proiektio bat ikusiko dute eta ondoren, txokolatada solidarioa.

ADUNA ▶

II. Muxkil Pilota Txapelketaren finalerdiak, gaur

Adunako II. Muxkil pilota txapelketako finalerdiak jokatu dira gaur, 12:00etan. Bihar, finala, 12:30ean.

AIZTONDO ▶



Elkarteen arteko mus txapelketa

Erredakzioa ▶ Larraulgo Katillu Txulo elkartean bailarako elkarten arteko urteroko mus txapelketa egin berri dute. Saiklapena: 1., Lontxo eta Markos, Aitzondotik; 2., Clemente eta Dominguin Bear-Zanatik; 3., Miren eta Feli, Zumbeltzetik; eta 4., Agustin eta Andres, Santa Marinatik. Argazkian txapeladunak eta txapeladunordeak. HITZA

LARRAUL ▶



Marrazki lehiaketa museoan

Erredakzioa ▶ Larraulgo Museo Entografikoak lehiaketa bat antolatu du eskolentzat. Berastegiko Muñagorri ikastolako 6. mailako Alazne Saizar eta Jon Fermin Gutierrezek eginiko marrazkiak —argazkian ikusten dena— irabazi du. Lehiaketara aurkeztutako marrazkiak hilaren bukaeraraino ikus daitezke museoan. HITZA

POLITIKA ▶

Jardunean diren udalen aktak eskatu ditu Guardia Zibilak

Udalerrri horietako ordezkariak, tartean Hernialde, Irura eta Leaburu, udalen egoera egonkortzea eta herritarren borondatea errespetatzea eskatu dute

IMANOL GARCIA

Guardia Zibilaren bisita jaso dute azken egunetan Tolosaldeko hiru udaletan —Hernialde, Irura eta Leaburu— eta Ai-

zarnazabalen eta Itsasondon. 2003ko udal hauteskundeetan ondoren, hau da, urte horretako ekainaren 14tik aurrera egindako osoko bilkura guztien aktak eskatu dituzte, Fiskaltzaren agindua medio. «Espero genuen horrelakorik», azaldu diote Irurako alkate Marimi Ugaldek eta Leaburuko alkate Joxe Kruz Goñik HITZARI. «Orain hilabete batzuk airatu zen Madrilen gure egoerari buruz hitz egiten ari zirela PP eta PSOEren Itunaren baitan eta espero genuen mugimendurik izatea». «Ez dugu ezer eskutatzen. Jakina denez, osoko bilkuretako aktak publikoak dira eta edozeinek ditu eskuragarri», gaineratu du Ugaldek.

Gipuzkoako bost udalerrri hauetan jarduneko udalak ari dira lanean egun. Udal hauteskundeetan ezker abertzaleko plataforma ilegalizatuek jaso zituzten boto gehien. Hori dela eta PNV eta EAKo hautetsiek beren kargua utzi zuten eta ondorioz aurreko legegaldian zeuden Udal gobernua jarraitu zuen. 2003ko hauteskundeetan herriak «bere borondatea adierazi zuen eta plataforma osatu genuenok azken urteotako norabidean jarraitzeko konfiantza jaso genuen herritarrengatik», azaldu dute bost udaletako ordezkariak.



Bost udaletako ordezkarien prentsaurrekoa. GARI GARAIALDE/ARGAZKI PRESS


Horrela, PNVri eta EAri «udalak herritarren hitzaren arabera osatu eta egoera egonkortzeko» eskatu dute eta 182.2 artikulua aplikatzea, jardunean egin ezin daitezkeen lanak aurrera atera ahal izateko.

Eguneroko lanean

«Guk lanean jarraituko dugu orain arte bezala», azaldu du Leaburuko alkateak. Jardunean izateak udaletako egunerokotasunari ez dioela eragin handirik egiten azaltzen dute eskualdeko bi alkateek. «Hirigintzan erabaki batzuk ezin dira egin, baina esan daitezke %90an ari garena lanean», dio

Goñik. Azken hauteskundeetan ondoren, «ez dut somatu ezberdintasunik eguneroko lanean» azaldu du Irurako alkateak eta gaineratu: «Bi urte egon gara lanean eta falta diren beste bi urtetan lanean jarraitzen uzteko eskatzen dugu».

Udalak bigarren mailakoak izatea ez dutela onartuko adierazi du Ugaldek: «Beste edozein udalen bezalakoak gara. Legitimazio guztia daukagu. Ez dugu onartuko, ez gure udalak bigarren mailakoak izatea, ez eta herriaren nahia betetzen duteen beste formularik». Bide batez, herritarrengandik jasotako «babesa eta indarra» eskertu dituzte.



ALEGIA ▶ KIROLA



Xantoxen omenezko txapelketan jokatutako norgehiagoka baten une bat. NOELIA LATABURU

Abian da 'Xantox'-en omenez antolatutako futbol txapelketa

Helduen arteko norgehiagokak larunbatero jokatzen dira eta txikiak ostiraletan; guztira 13 taldek hartzen du parte

NOELIA LATABURU

Usadio zaharrak berreskuratu dituzte Alegiako Gaztetxeo kideek, Xantoxen omenezko futbol txapelketa antolatzerakoan. Izan ere, txapelketa hau duela 30 urte inguru hasi zen jokatzen herrian.

Xantox istripu baten ondorioz soldaduskan hildako alegiaria zen. Haren lagunak bere omenezko txapelketa bat antolatzea erabaki zuten. Partida hauek eskolan jokatzen ziren, garaiko belarrezko zelai batean. Ondoren, obrak zirela-eta eskola txikietako patiora pasa ziren. Duela bi urte hemen ere txukunketa lanak hasi ziren eta txapelketa bertan behera geratu zen. Hutsune honen ostean Gaztetxeak berriz antolatu du txapelketa hau, iragan apirilera hasi zena.

Bi maila ezberdinetan bana-

tu dira. Horrela, helduak zortzi talde dira eta txikiak —14 eta 15 urte bitartekoak—, berriz, bost. Lehenengoak, larunbatero jokatzen dute eta txikiak ostiraletan. Arbitratze lana ere taldeko kideek burutzen dute.

Antolatzaileen xedea txapelketa festa alternatiboetarako amaitzea da, non herri bazkaria antolatuko duten eta sariak banatuko dituzten.

Gaurko norgehiagokak

Arratsalde guztian zehar Aralar institutuko patioan lau neurketa jokatuko dira. Hauek dira: 15:00etan *Etxale Kuyons* eta *Uau Roberto*, (arbitroak *Ospelakoak*). 16:00etan *Txurtxil* eta *L* (arbitroak *Budweiserkoak*). 17:00etan *Kokox klan* eta *Budweiser (Ospela)*. 18:00etan *Aston Bila* eta *Ospela* (arbitroak *Budweiser*).

PARTAIDEAK ▶

Guztira helduen 8 eta txikiak 5 taldek eman zuten izena txapelketan parte hartzeko, 30 euroren truke.

HELDUAK

- Kokox klan.** Alegia.
- Txurtxil.** Alegia.
- Uau Roberto.** Alegia.
- Aston Bila.** Alegia.
- Ospela.** Amezketak.
- Etxale Kuyons.** Alegia.
- Budweiser.** Alegia.
- L.** Alegia.

TXIKIAK

Bost talde dira denera, 14 eta 15 urte bitartekoak. Izen eman zuten guztien artean taldeak sortu dira, euren arteko oreka lortzeko. Ez dute izenik, 1etik 5era zenbatuak doaz.

TOLOSA ▶ KIROLA

Abraham Olanoren omenezko klasika bihar

Arantxa del Rio omenduko dute aurten; lasterketa 08:30ean irtengo da Olarraindik

ERREDAKZIOA

Bihar egingo dute Abraham Olano Nazioarteko IX Zikloturista Klasika. 08:30ean irtengo da txirrindularitza lasterketa Tolosako Olarrain auzotik, helmuga ere auzo berean izango dutelarik.

Peña Olanok antolatzen duen klasika honetan Arantxa del Rio txirrindulari ohia omenduko dute aurtengoan, «bere ibilbidea» dela eta. Tolosaldeko eta inguruko partaideak izango dira nagusi, bai eta Kataluniako txirrindulariak ere. Soilik federatuak diren zikloturistek har dezakete parte, 12 euroren truke.

Bi ibilbide antolatu dituzte. Laburrena —B ibilbidea— 66



Abraham Olano. A. ELDUJAIEN

kilometrokoa da eta bi igoera ditu: Urkillaga (400 metro) eta Altzo (250 metro).

Luzeenak, berriz, —A ibilbidea— 114 kilometro ditu eta hiru igoera nagusi ditu, Gipuzkoan eta Nafarroan: Lizarrusti portua, Aralarko San Miguel eta Huitzi portua.

IBARRA ▶

Arau subsidiarioak gelditzeko sinadura bilketa

Gaur 19:30etik aurrera Ibarako san Bartolome plazan udal planeamenduko arau subsidiarioen tramitazioa gelditu asmoz, sinadura bilketa egingo lana, Uzta plataformak bultzatuta. Ibartar guztiak izango dute sinadura bilketa honetan parte hartzeko aukera.

LIZARTZA ▶

Ekaineko KZguneko ikastaroak

Lizartzako KZgunean, ekainean Interneteko oinarriko 20 orduko bikastaro antolatu dituzte. Ekainaren 6tik 17ra 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. KZgunean bertan izena eman nahi dutenek 943 68 22 45 zenbakira hots egin beharko dute.

SENDI EKINTZA *taberna*
pintxo beroak eta ogitartekoak
San Bartolome, 5 • Ibarra • Tel.: 943 67 57 28

KARLATZ
Garagardotegia
Euskal-Herria, 6 ondo pasa
Tel. 943 67 56 36 garagardo festan! 20400 IBARRA
(Guipuzkoa)

iragarki laburrak ▶

Kutxak eta banketxeak. Lekuak libre. Sartzak laster. Informatu. 943 43 41 27.
Peoiak, igeltseroak, soldadoreak, mantenimendukoak. Sartzak laster. Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain,

Mendaro, Villabona. Informatu. 943 43 41 27.
Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak. Sartzak laster: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 43 41 27

Administrari laguntzaileak. Sartzak laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu. 943 43 41 27
Gidariak. Sartzak laster: udalebeak, Eusko Jaurlaritza, Foru

Aldundia. Informatu 943 43 41 27 telefonoan.
Harreragileak, telefonistak. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27
Administrari laguntzaileak.

Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27.
Udaltzainak. 25 plaza libre udaletxeetan: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

BERROBI ▶ KIROLA

Aizkora apustua
antolatu dute igandean

Mikel Belauntzaran eta Iñaki Pagola
aizkolariak ariko dira nor baino nor



Mikel Belauntzaran Benta Aldean egindako aizkora proban. I.GARCIA

I.TERRADILLOS

Igande eguerdian Berrobin lagunartean antolatu duten aizkora apustua egingo da. Herriko enparantzan izango da ikusgai da 13:00etan.

Apustuan lehiatuko diren aizkolariak 23 urteko Mikel Belauntzaran berrobitarra eta 53 urteko Iñaki Pagola anoetarra izango dira, eta bi aizkolariak burutu beharreko lana 4

kanaerdiko moztea izango da.

Pasa den ostiralean zehaztu zuten lagunarteko desafioa, eta antolatzaileek azaldu bezala «aizkolariak prestatzeko denborarik izan ez zezaten aste bateko tartea besterik ez dugu eman».

Antolatzaileek jendea animatu nahi dute aizkora festa honetaz gozatzera igande eguerdian Berrobiko plazara gerturatu daitezten.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Arau subsidarioei
buruzko bilera egingo da

ERREDAKZIOA

Udalak aurrerapen fasean dauden Ibarako hiri antolamenduko arauen dokumentua idatzit duen taldearen biler

ra berriemailerara deitu nahi ditu Ibarako herritar guztiak.

Bilera datorren astearte arratsaldean, maiatzaren 24ean, egingo da, 18:30ean udaletxeko bilera aretoan.

BERROBI ▶ KULTURA

Gaztetxoak artista
sena erakutsiz

Antzerkia eta Literatur Lehiaketako sari banaketak izan ziren atzo; gaurkoan, toka, pailazoak eta txakoli dastaketa

IÑIGO TERRADILLOS

Askotariko ekitaldiez ari dira gozatzten berrobitarrak egun hauetan izaten ari den XV. Kultur Astean.

Atzo arratsaldean gaztetxo-en txanda izan zen. Euren artista sena erakutsi ahal izan zuten Etxolan eskaini zuten emanaldian. Piratak, itsasoaren erregea, sirenak... irudikatu zituzten eskaini zuten antzezlanean eta ederki igaro zuten emanaldia ikustera gerturatu ziren herritarrek. Antzezlanaz gain, bertsoak, olerkiak eta musika izan ziren, besteak beste, ikusgai.

Behin ikasleen emanaldia amaituta, Literatur Lehiaketako sari banaketa egin zen. Adinaren arabera banaturik sari ezberdinak banatu ziren, azken hilabetean gaztetxoek aurkeztu dituzten lanak baloratu ondoren.

Gaurko egitarauari dagokionez, 17:00etan toka txapelketa ikusiko ahalko da, 17:30ean herriko pilotalekuan Pirritx eta Porrotxen *Patata patata* emanaldiaz gozatzeko dute txikiak euren gurasoekin, eta Berrobiko XV. Kultur Astearekin amaitzeko 19:15ean txakoli dastaketa egingo dute udaletxe aurrean.



Eskolako ikasleek antzezlan eskaini zuten atzo Etxolan. I.TERRADILLOS



Bertsotan ere adituak direla erakutsi zuten. I.TERRADILLOS

IBARRA ▶ KIROLA

Carnicerias Saenz-en eta Burlataren
emaitzen zain daude ibartarrak

Atsedenaldea izango du Ibarak denboraldiko azken jardunaldian

I.TERRADILLOS

Asteburu honetan jokatuko dira 2004-2005 denboraldiko Lehen A Mailako areto futboleko azken partidak, eta Ibarak atsedenaldea izango du. Hala ere, horrek ez du esan nahi ibartarrentzat dena amaitu denik, asko baitute jokoan.

Aste honetan Madrildik iritsi da Ibarakoei «min handia» egin diezaiekeen albistea. Izan ere, denboraldi hasieran ze-

hazu bezala, lau izango dira azkenean mailaz jaitsiko direnak, eta ez gerora erabaki zen moduan hiru talde. Horren arabera, Ibarra, Carnicerias Saenz eta Burlataren artean bi izango dira jaitsiko diren taldeak. Beraz, lehen zaila bazuen orain asko zaildu zaio Ibarri mailaz mantentzea. Aukera bakarra, aipaturiko beste bi taldeek larunbateko partida galteza litzateke, horrela hiru taldeek puntuz berdinduko

bailukete. Eta kasu horretan, Ibarak lortuko luke mantentzea, golak ez baino euren artean lortutako puntuak hartzen baitira kontuan.

Bestalde, Burlata eta Carnicerias Saenz taldeek jokatuko dituzten partidak ez dira irabazteko errazak, beraz aukera handiak izango ditu Ibarak Lehen A Mailan jarraitzeko. Adi begiratu beharko diete bi taldeek euren partidetan lortuko dituzten emaitzei.

Lizardi
inmobiliaria

TOLOSA: 140m2 duplexa berritua eta altzariekin.
TOLOSA: 70m2 pisua berritzeko gazteentzat.
TOLOSA: Geltoki aldea. Eraikuntza berria. Informazio pertsonala.
IBARRA: 70m2 pisua berritua eta argitsua.
ORDIZIA: Etxe atxikia, txokoa, garajea 2 kotxerentzat, 4 logela, terraza eta jardina.

Samaniego, 1 • TOLOSA
Tel.: 943651122 • Tel.: 679842785

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m², Berritua.
Salgai (Tolosa). Pisua handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Amezketza). 3 logelako pisua. Altzari eta garajearekin.
Alokatzeko (Alegia). 3 logelako pisua Altzariekin.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

ARESO ▶ GIZARTEA

Joseba Olazabal zendu da, auto batek harrapatuta

Gaztea, txirrinduan zebilen Kaxetatik Leitzalderako errepidean, auto batek harrapatu zuenean; Iruñera oso egoera larrian eraman eta atzo zendua da



Joseba Olazabal —kamarari begira— ezagun zen kirol munduan, batez ere soka tiralariartzan. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdiartean jakindu zen, azkenik, Joseba Olazabal zendua zela, bezperan, ostegun iluntzean izandako istripuaren ondorioz. Gaztea oso larri zaurituta eraman zuten Iruñeko eritexera, eta azkenik ez zuten berreskuratzerik lortu.

Gertaera, esan bezala, ostegun arratsaldean jazo zen, Leitzatik Kaxetarako errepidean, bera txirrinduan zebilela. Nonbait jada, Leitzalderantz itzulerakoan, auto batek (Ezkurra-koa da gidaria) harrapatu zuen, oso zauri larriak eraginez. Leitzaldeko ambulanzia bat bertaratu eta Iruñera eraman zuten, «bidean medikalizatutako beste batera» aldatu ondoren, iturri ofizialen arabera. Berreskuratze eginahalak eginda ere, istripuak eraginda-

ko zauri larrien ondorioz, azkenik koma egoran sartu zen, atzo eguerdiartean bere heriotzaren berria iritsi zen arte. Istripuaren ikerketa, Foru Zaingoaren esku dago, eta istripuaren ondorengo orduetan, nondik norakoak aztertzen ziharduten.

Joseba Olazabal aresoar gazteak, 25 urte zituen eta istripua izan zuenean, entrenamendu prestaketak egiten ari omen zen. Izan ere, bera, Aresoko soka-tira taldeko tiratzailea izaki, orain Euskal Herriko Txapelketetan murgilduta zegoen, eta gazte hau txirrinduan ibiltzen zen, bere kideak laisterka ibiltzen ziren bitartean.

Hain zuzen ere bere sokako kideen artean nabaria zen oso, berriak eragin zuen zirrara. Eta Aresoko herrian ere berdin, gazte nahiz helduen artean, ondorioak bistakoak ziren.

LEITZA ▶

Etxeen izenak euskaraz jartzeko diru laguntzak

Euskara Zerbitzuak ematen ditu urtero, errotularen %50 ordainduz

J. ASTIBIA

Etxearen zein baserriaren izena atarian jarri nahi izanez gero, Euskara Zerbitzuak, erdia ordainduz lagunduko luke, gehienez 130 euro arte iritsiz. Haxeke jakinarazi berri dute bertatik.

Hori bai etxeen izena, euskaraz jartzan den kasuan baliatu omen daiteke aukera horretaz: «Izenaren aldaera normalizatua errespetatu eta euskal grafia erabili» behar omen da. Eskara, zerbitzuak bulegoetan egin behar da, horretarako eskabidea bete eta errotularen ordainagaria eramatea nahikoa izanik.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423
▶ Baliarrain. Medikua: 889003
▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134
▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228
▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.
▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiko autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.
▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA

Lan istripuen aurrean, «prebentzio gehiago» eskatu du Leitzako Sarrio paperfabrikako LAB sindikatuak

Eskualdean azken boladan gertatu diren lan istripuen aurrean, elkarretaratzea burutu du

J. ASTIBIA

Lan istripuaren aurka... prebentzioa, horixe zioen atzo Leitzako Sarrio paperfabrikako LABeko delegatuek egin zuten elkarretaratze leloak.

Izan ere horixe aldarrikatu nahi izan zuten, lantokiko segurtasun neurri garrantzitsuenetakotzat, «prebentzioa» joz. Adierazi zuten, «lantokietan lan erritmoak areagotzeak, etekin gehiago lortzeari lehentasuna emateak, lan prekarietateak», moduko arazoiek ez ezik, «batez ere», zioten, lantokietan «enpresei dagozkien prebentzio neurriak ez hartzeak», eragiten omen ditu lan istripuak. Eta horiek, lan istripuak alegia, ez dituzte «ez-usteko» gertaera modura hartzen, baizik eta hainbat faktorek, aipatutako arazo horiek kasu, eragindakoak eta

langileek «jasan behar izaten dituztenak». Horrela, gogora ekarri zituzten, azken bolada honetan lan istripuei dagokienez eskualdea jasaten ari den «zartakoak»: «Goizuetako gazte bat eraikuntzan, Uharte Arakilen traktoreak harrapatuta eta orain berriroko Sarrioko beste langile bat hilak —3 lagun—, Leitzan eraikuntzan beste hiru langile zauritu...», azaldu zuten. Hain zuzen ere, jasan behar hori, «onartezintzat» jo zuten eta zentzu horretan, enpresen zuzendaritzei eta administrazioari «lantokietan behar diren segurtasun neurriak» hartzeko eskatu zieten.

Helburu hori lortuko bada, «LAB-en lan ildoetan ezinbesteko tresna» modura jo zuten, «langileen mobilizazioa» lortzea eta horren harira egin zuten atzoko elkarretaratzea, adierazi zuten.



Delegatuek eskuorriak banatu zituzten jendartean atzokoan. J. ASTIBIA



**Leitzan, Maiatzaren 22an
HERRI KONTSULTA:
Leitzan harrobirik bai ala ez?**

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. II. Garagardo Festa. 18:00etan, txupinazioa eta ume jokoak; 23:30ean, euskal makila borrokaren erakustaldia, txalapartaz lagundurik.
Tolosa. *Misterioa gazteluan* antzerkia. 17:00etan, Leidorren.

JAIK

Anoeta. Koadrilen eguna egun osoan: bazkaria, jolasak, poteoa, afaria... Egitarau ofiziala: pilota txapelketa, herriko artisten erakusketa, Basajaun musika taldea... Herri borondatearen aldeko jaiak: kalejira segalariekin, sega apustua, DJ Bull...

MUSIKA

Tolosa. Zein? eta Captain Nemo. 22:30ean, Bonberenean.
Tolosa. Herri musika tresnen topaketa, goizean. XI. Musikariaren baitan.

ZINEMA

Tolosa. *El gran golpe*. 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIAK

Txolarre irratia
10:30-13:00. *Hitza* hegana saioa. Besteak beste, Lorea Agirre Berria egunkariko kazetari alkizarra elkarrizketatuko dute.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Egindakoarekin «pozik»

TOLOSA ▶ Laskorain ikastolakoek eta Hirukide ikastetxeok herriko gazteak ordezkatu dituzte Ingurumenari Buruzko Mugaz Gaindiko Gazte Biltzarran



Kolore guztietako proiektuek hartu dute parte biltzarran. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosako Laskorain ikastolako eta Hirukide ikastetxeok ikasleak eta irakasleak «pozik» itzuli dira Irungo Ficoban egin berri den ingurumenari buruzko Mugaz Gaindiko Biltzarretik. Haiei egokitu zaie orangoan herriko haur eta gazte guztiak ordezkatzeari; izan ere, Samaniegoko eta Orixeko kideekin batera ikasturtean landutako *Kalea=Elkargunea* proiektua aurkeztu dute bertan.

Laskorain ikastolakoek herriko zenbait parketan eta jolaslekutan egindako azterke-

ten emaitzak, gazteen asialdiaren erabilerari buruzkoak eta ikastetxeok patioaren hobekuntzarako proposamenekin egindako lana azaldu dute. Eta Hirukidekoek %10 proiektua eraman dute Ficobara, hirian dagoen presari buruzko hausnarketa: autoz mugitzean, hiri barnean, 30 kilometro orduko abiadura muga errespetatzea, eta bestelako errepideetan 100 kilometro ordukoa.

Baionako, Hendaiaiko, Eibar-ko, Zarauzko eta Irungo gazteek ere parte hartu dute biltzarran. Guztien artean Eurohiriko ingurumenaren aldeko gazte-gutuna idatzi dute.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



ZORIONAK
Joseba eta Enkarni (Orio). Zorionak zilarrezko ezteietan, Bedaioiko familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Maite (Berastegi). Zorionak pitxurri! Muxu pilo bat Mak-mak koadrilaren partetik.



URTE ASKOAN
Helene Usabiaga Irazu (Asteasu). Gaur 2 urte. Osaba, izaba, Alaia eta Ugalzten partetik.



Orain dela urte bete begiratu goxo batekin joan zinen urrun baina gure bihotzean zaude bizi garen artean agur gero arte zure emazte, seme-alaba eta bi ilobak

hitza **lagunen txokoa** **'Lagun ezazu HITZA laguntzen'**
▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **IBARRAKO GARAGARDO FESTAN** bina afari ederren irabazleak:
• Iñaki Gabarain (Irura) • Ikerne Odriozola (Anoeta)
• Ruben Etxeberria (Amezketza) • Xabier Mitxelena (Villabona)
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero
laguntzaile: **hitza**
2005eko maiatzaren 19, 20, 21 eta 22a
Jaki tipikoak **20 garagardo mota**
+ 5 KALIMOTXO mota aukeran